

GAKO EKONOMIKOAK

- Hasi da deskonfinamendua, jarduera ekonomikora itzultzen hasi gara eta badirudi aurrerakuntzak badaudela Covid-19aren aurkako txertoa aurkitzeko. Izan ere, kezka ugari ditugu oraindik ere, eta lehenengo zein bigarren hiruhilekoetan inpaktu ekonomikoa handia izango da.
- Bigarren hilez igo dira nabarmen errenta aldakorrek merkatuak.
- Tasen gorakada bonu alemanean eta amerikarrea, eta herrialde periferikoaren arrisku primaren eta enpresa bonuen diferentzialen hobekuntza.
- Euroa indartu da Europar Batzordeak berregituratzeko funts bat iragarri ondoren. Bien bitartean, petrolioaren prezioa ia % 55 igo da eta martxoaren erdialdean zuen mailara itzuli da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Maiatzean, bukaeran gehienbat, bi faktore izan dira nagusi finantza merkatuetan: Europar Batzordea berregituratzeko egitasmoa eta AEBren eta Txinaren arteko tentsioen areagotzea. Hortaz, hileko motor gorakor nagusia eta haren hasieran bizitako jaitsieraren motelgailua izan dira Europa berregituratzeko funtsa. Hari, deskonfinamenduaren urratsak eta Covid-19aren aurkako txertoa aurkitzeko hainbat ikerketaren bilakaera ona gehitu zaie. Gauza asko oraindik kolokan eta xehetasun asko zehaztu gabe badaude ere, eta iparreko herrialdeen aurkako jarrera gainditu beharra egon arren, Frantzia eta Alemania arteko itunak eta Europako Batzordeak babestutako funtsa zerga politika bati zuzendutako lehenengo urrats gisa hartu da. Horrez gain, maiatzean zehar, Bundesbankek aktiboak erosteari utzi eta iraganean erositako guztia saltzea zehazten zuten Alemaniako Auzitegi Konstituzionalaren ebazpenaren ondorioz Europar Batasunaren hauskortasuna mahai gainean utzi zuten hodei ilunak kanporatzeko baliagarria izan da. Europar Batasunak iragarritako neurriak bonu mankomunatuak jaulkitzea aurreikusten zuten, 750.000 milioika eurokoak, Batasunaren 1,1 bilioiko hainbat urterako aurrekontua osatzeko. Likidezia atzitzeko transferentziak egin ziren nagusiki (500.000 milioi) eta gainerakoak mailegu bidez egin zen. Osasun arloan, koronabirusa gelditzea, MOEk infekzio berrien bigarren agerraldia gertatzeko probabilitatea txikiagoa zela adieraziz eta txertoen inguruko ikerketen aurrera pausok ere lasaitu zituzten inbertitzaileak. Ezkortasuna Txinaren eta AEBren arteko tentsio gero eta handiagoarekin zetorren, arlo komertzialean hasi baina arlo geopolitikoagoetara hedatu baitzen. Oraingoan, Pekinek Hong Kongekiko duen jarreraren ondorioz, orain arte Washingtonek eskualde erdiautonomo gisa ematen zion merkataritzia eta inbertsiorako erregimen berezia galtzeko arriskuan baitago. Bestetik, agenda makro eta mikroekonomikoak azken asteotan berri txarrak utzi zituen, baina iraganaz hitz egiten dutelako, lehenengo hiruhilekoaren enpresa emaitzak argitaratzeko aldiaren bukaera zelako, eta urte barruko eroriko portzentual handiak islatzen zituzten, bi digitukoak, edo munduko ekonomia nagusien atzeraldian sartzea berresten zuten, zalantza edo ziurgabetasunez betetako testuinguruan. Ondorioz, esaterako, Txinak urteko hazkuntza ekonomikoko helburuak baztertu ditu lehenengoz azken 30 urteotan.

ERRENTA ALDAKORRA

Berrezartzeko funtsarentzako europar akordioak eta Covid-19aren aurkako txertoa aurkitzeko hainbat ikerketaren bilakaera ona ikusita, burtsek gorantz egin dute eta maiatza positiboan itxi dute, bigarren hilez jarraian. Hilaren hasieran jaitsierak izan ziren nagusi, guztiz kontrolatu gabe zegoen krisialdia zela eta, eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko tentsioek gora egin zutelako, urtarrilean lortutako merkataritzako akordioa kolokan jarri. Halere, hilaren bigarren zatian inbertitzaileen inbertitzeko gogoia itzuli zen, eta zutik jarraitu zuen martxoaren erdian abian jarritako goranzko joera. Oraingoan, mundu osoko burtsetan hobekuntza historikoa lortu da. Halere, saldoa desberdina izan da munduko burtsa desberdinentzat. Hortaz, Amerikako indize nagusiak, S&P500, % 4,5ko igoerarekin itxi du maiatza, eta otsaileko gehieneko historikoaren % 10an kotizatu zuen. Izan ere, teknologiak indartsuenaren legea ezartzen jarraitzen du eta Nasdaq indizea, % 6 baino gehiagoko aurrerapenarekin, bere errekor historikora hurbiltzen ari da. Bien bitartean, Europa mailan, Eurostoxx-ak % 4-tik gorako igoerak izan ditu. DAX alemanak izan du hilean jarrerarik onena (+ % 6), eta eroriko osoaren erdia dagoeneko berreskuratu duen Europako indize bakarra da. Europatik kanpo, japoniar burtsak ere % 8,34 lortu du, eta ia % 30 igo da martxoan unerik txarrenarekiko. Bestetik, emergenteak, oro har, puntu erdi bat inguru igo dira, herrialde bakoitzak egoera oso desberdina bizi badu ere.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	7.096,50	EUR	%2,52	%-25,68
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.050,20	EUR	%4,18	%-18,56
S&P-500	AEB	3.044,31	USD	%4,53	%-5,77
DOW JONES	AEB	25.383,11	USD	%4,26	%-11,06
NASDAQ 100	AEB	9.555,52	USD	%6,17	%-9,42
NIKKEI-225	JAPONIA	21.877,89	JPY	%8,34	%-7,52
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	930,35	USD	%0,58	%-16,54
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	197,17	EUR	%3,03	%-8,10

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Zorren merkatuan, arriskuari beldur txikieneko ingurunean, maiatzean bonu periferikoak erosi dira eta amerikar eta alemaniar bonuak saldu dira. Burtsen tonu hobekuntza die Alemaniako eta Estatu Batuetako bonuei, eta haien errentagarritasunak gorantz egin du. Aldiz, europar periferikoek onura atera diote Europa berrezartzeko funtsaren sorrerari eta Alemaniarekiko diferentzialak hobetu dituzte. Espainian, arrisku-prima oinarritzko 100 puntuen ingurura itzuli zen. Ildo berean, enpresa bonuek euren diferentzialak lasaitzen zirela ikusi zuten.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,31	-0,03	0,08
	6 HIL.	-0,16	0,01	0,17
	12 HIL.	-0,09	0,03	0,16
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,66	10,10	-5,80
	5 URTE	-0,64	11,80	-17,10
	10 URTE	-0,45	13,90	-26,20
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,35	-12,60	4,30
	5 URTE	-0,07	-11,10	0,70
	10 URTE	0,56	-16,10	9,40

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Europar dibisa sendo mantendu da Europar Batzordearen Berrezartzeko Funtsa iragarri zuenetik. Hortaz, hilean zehar, % 1,33 sendotu da dolararekiko, eta bi hileko maximoa gainditu du. Era berean, moneta komunak balioa irabazi du librarekiko, 0,86€/eurora iritsi arte. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren mugimendua aipatu beharra dago. 1999. urtera jo behar dugu maiatzeko petrolioaren prezioan izandako gorakada aurkitzeko. Oraingoan, prezioa ia % 55 igo da eta martxoaren erdialdeko mailara itzuli da mundu mailan eskaerak izandako gorakadaren, Saudi Arabiaren eta Errusiaren arteko prezioen borrokan bukaeraren eta OPEPekoak ez diren herrialdeetako ekoizpenaren murrizketen ondorioz.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg